BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

4132

AGINDUA, 2014ko apirilaren 24koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, «Fundación Vasca de Innovación e Investigación Sanitarias» fundazioaren estatutuetako 5. artikuluan (helbidea) egindako aldaketak onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko egindako eskabidearen espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2014ko martxoaren 17an sartu zen Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailean «Fundación Vasca de Innovación e Investigación Sanitarias» fundazioaren idazkari ez-patronoaren Martin Recalde Llanos jaunak sinatutako eskabidea, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan «Fundación Vasca de Innovación e Investigación Sanitarias» estatutuen 5. artikuluaren aldaketa inskribatzeko.

Eskabidearekin batera, Eskritura Publikoaren kopia bikoitz baimendua aurkeztu zen publikoari aurkezteko sozietatearen egoitza eta estatutu sozialen bosgarren artikulua aldatzeko erabakia; eskritura publiko hori 2014ko martxoaren 7an eman zuen Martin Recalde Llanos jaunak, Fundazioaren izenean eta ordezkaritzan, Patronatuko kide ez den idazkari gisa, Arrasateko notario den Antonio Román de la Cuesta Gladisen aurrean (protokolo-zenbakia: 200).

Eskritura publiko horrekin batera, 2014ko otsailaren 11n egindako bilerari buruzko ziurtagiria aurkeztu da. Martin Recalde Llanos, Patronatuko kide ez den idazkariak egin zuen ziurtagiri hori, 2014ko urtarrilaren 23an, lehendakariaren baimenarekin. Bilera horretan, besteak beste, Fundazioaren helbide soziala aldatzea erabaki zen, eta, horren ondorioz, Fundazioaren Estatutuetako 5. artikulua ere aldatzea.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistro, Aholkularitza eta Kontrol Unitateko zerbitzu teknikoek aztertu dute espedientea, eta, ondoren, ebazpen-proposamena aurkeztu.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espediente hau agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuan; eta Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzekoan.

Bigarrena.– Estatutuen aldaketa onartzeko eta aldaketa hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko espedienteari funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta, bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko

12/1994 Legearen 31. artikuluan eskatutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduaren 44. artikuluan eskatutakoak. Azken erregelamendu hori ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren bidez onartu zen.

Ikusirik aipatutako arauak eta aplikatzekoak diren gainerako arauak,

Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Onartzea «Fundación Vasca de Innovación e Investigación Sanitarias» fundazioaren estatutuetako 5. artikuluan egindako aldaketa.

Bigarrena.– Fundazioaren estatutuen aldaketa hori inskribatzeko agintzea agindu honen datarekin, fundazioaren helbide soziala aldatzeko eta, ondorioz, estatutuetako artikulua aldatzeko eskritura publikoan ezarritakoaren arabera, zein 2014ko martxoaren 7an egiletsi baitzuen patronatuko lehendakari den Martín Recalde Llanos jaunak, «Fundación Vasca de Innovación e Investigación Sanitarias» fundazioaren izenean eta ordezkaritzan, Arrasateko notario den Antonio Román de la Cuesta Gladisen aurrean (protokolo-zenbakia: 200).

Inskripzio honen ondoren, fundazioaren helbide sozialak udalerri berean jarraitzen du: Azkue ingurabidea 1, Barakaldo.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 24a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.